

**Fiskalizazio Txostena**

**Informe de Fiscalización**

**Zarauzko Udala**

**Ayuntamiento de Zarautz**

**2009**





## AURKIBIDEA / ÍNDICE

SARRERA.....	5
I. IRITZIA.....	6
I.1 Udala.....	6
I.1.1 Legea betetzeari buruzko iritzia.....	6
I.1.2 Urteko kontuei buruzko iritzia .....	7
I.2 Erakunde autonomoak eta sozietate publikoa .....	8
I.2.1 Legea betetzeari buruzko iritzia.....	8
I.2.2 Urteko kontuei buruzko iritzia .....	9
II. BARNE KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK.....	9
II.1 Aurrekontua eta kontabilitatea .....	9
II.2 Langileak.....	10
II.3 Diru-laguntzak.....	11
II.4 Kontratazioa.....	12
II.5 Toki erakunde autonomoak eta sozietate publikoa .....	14
III. FINANTZEN ANALISIA .....	15
IV. URTEKO KONTUAK .....	18
IV.1 Udala.....	18
IV.2 Erakunde autonomoak eta sozietate publikoa .....	21
INTRODUCCIÓN.....	23
I. OPINIÓN.....	24
I.1 Ayuntamiento .....	24
I.1.1 Opinión sobre el cumplimiento de la legalidad .....	24
I.1.2 Opinión sobre las cuentas anuales.....	25
I.2 Organismos autónomos y sociedad pública .....	26
I.2.1 Opinión sobre el cumplimiento de la legalidad .....	26
I.2.2 Opinión sobre las cuentas anuales.....	27
II. CONSIDERACIONES SOBRE LOS SISTEMAS DE CONTROL INTERNO Y PROCEDIMIENTOS DE GESTIÓN.....	28
II.1 Presupuesto y contabilidad .....	28
II.2 Personal.....	29
II.3 Subvenciones .....	29
II.4 Contratación .....	31
II.5 Organismos autónomos locales y sociedad pública .....	33



<b>III. ANÁLISIS FINANCIERO .....</b>	<b>34</b>
<b>IV. CUENTAS ANUALES.....</b>	<b>37</b>
IV.1 Ayuntamiento .....	37
IV.2 Organismos autónomos y sociedad pública .....	40
<b>ANEXOS .....</b>	<b>43</b>
A.1 Naturaleza del ente fiscalizado y legislación que resulta de aplicación ...	43
A.2 Presupuesto y sus modificaciones .....	44
A.3 Impuestos, tasas y otros ingresos .....	45
A.4 Ingresos por transferencias y subvenciones .....	46
A.5 Gastos de personal .....	47
A.6 Transferencias y subvenciones concedidas .....	48
A.7 Pasivos financieros .....	49
A.8 Deudores presupuestarios.....	50
A.9 Conciliación resultado patrimonial y presupuestario.....	50
A.10 Clasificación funcional del gasto .....	51
A.11 Análisis de contratación .....	51
A.12 Organismos autónomos locales y sociedad municipal .....	52
<b>ALEGAZIOAK .....</b>	<b>55</b>
<b>ALEGACIONES .....</b>	<b>63</b>



## SARRERA

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak (aurrerantzean HKEE) otsailaren 5eko 1/1988 Legeak eta Epaitegiaren Osokoak onetsitako Lan Programak agindutakoari jarraiki, Zarauzko Udalaren 2009ko Kontu Orokorraren fiskalizazio lana mamitu du.

Fiskalizazio lan honek honako alderdi hauek besarkatzen ditu:

- Legezketasuna: Honako aurrekontuaren atal hauetan ezargarria den arautegia bete izana: aurrekontua, zuzenbide publikoko sarrerak, zorpetzea eta finantza eragiketak, langileria, obren kontratazioa, zerbitzuak eta hornidurak eta diru-laguntzen emakida.
- Kontabilitatea: Kontu Orokorra ezargarri zaizkion kontularitzako printzipioekin bat datorrela egiaztatzea. Kontu Orokorrak honako atal hauek besarkatzen ditu: Udalaren egoeraren balantzea, galdu-irabazien kontua eta memoria; baita udalaren eta bere Erakunde Autonomoen aurrekontuen likidazioa ere.
- Udalaren egoera ekonomikoaren finantza analisia.
- Bestelako alderdiak: Lanaren zabalak ez du gastuaren eraginkortasun eta zuhurtasunari buruzko azterlan berariazkorik besarkatu; ezta, Udalaren kudeaketa prozedurei buruzkorik ere. Nolanahi ere, fiskalizazioan zehar sortu diren alderdi partzialak txosten honen II. idazpuruan aztertu ditugu.

Zarauzko Udalak 22.627 biztanle zituen 2009ko urtarrilaren 1eko biztanleen udal erroldaren arabera, eta bere antolamenduan bi toki erakunde autonomo eta ondoko sozietate publiko bat barne hartzen ditu:

- Zarauzko Turismo Bulegoa.
- Zarauzko Kirol Patronatua.
- Zarautz-Lur, SA.

Udalak, gainera, Zarauzko Industrialdea, SA sozietatean esku hartzen du (% 24,5) eta Gipuzkoako Uren Partzuergoko, Urola Kostako Mankomunitateko eta Urkome mendi nekazaritzako elkartearen kide da.



## I. IRITZIA

### I.1 UDALA

#### I.1.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

##### KONTRATAZIOA

1. TAO zerbitzua kudeatzeko kontratua 2007ko otsailean hasi zen exekutatzen. Zerbitzuaren aginduak hainbat aldaketa izan zituen; aldaketa horiek guztiak kudeaketa kontratua eragiten zutela aintzat hartu gabe onetsi ziren eta honenbestez, zegozkion kontratu aldaketak izapidetzea beharrezkoa zela. Gainera, kontratuak hiruhileko izaerarekin kanon aldakor bat jasotzea aurreikusi zuen, baldin eta soberakinak gertatuko balira; ordea, ez da horren gaineko likidaziorik batere egin 2010eko abuztura arte. Kontratuaren pleguak ez ditu zerbitzuaren soberakina kalkulatzeko irizpideak zehazten eta horrek eragotzi egiten du horren zenbatekoa eta udalak bertan duen partaidetza zehaztea (B1 eta C akatsak, A.11 eranskinean).
2. Hiru kontratutan aldaketak egin ziren; kopurua aintzat hartuta, kontratazio araudiaren lehia printzipioak urratzen dituzte, izan ere, kontratuaren xedea ez ezik, bolumen ekonomikoa ere desitxuratu egin baitute; igoera ez dute arrazoi berri edo aurreikusi ezinekoek justifikatzen (B1 akatsa, A.11 eranskinean):
  - Arte eta Historia Museoa kudeatzeko kontratua 2002an esleitu zen 24 mila euroko zenbatekoarekin eta oinarritik aldatu zen 2004an, urteko kostua 91 mila euroan gehituz.
  - Azken Portu urbanizazioa eraberritzeko 144 eta 212 mila euroko lan osagarriak egin behar izan zituzten, 2009ko ekainean eta abenduan onetsi zirenak; horiek azken kostua % 33 garestitu zuten.
  - Talaimendi urbanizazioko lanen azken kostua % 40 gehitu zen hasiera batean esleitutako zenbatekoarekiko.
3. Hiru obra-proiektutan aldaketak egin ziren eta horiek egiaz exekutatu ondoren onetsi ziren edo ez ziren batere onetsi (B2 akatsa A.11 eranskinean):
  - Gurmendi kaleko aparkalekuan egitura eta zimenduak jartzeko sistema aldatu egin ziren; aldaketa 223 mila eurokoa izan zen eta 2010eko maiatzean baimendu zen; ordea, lanen egikaritzari aurreko urteko uztailean ekin zitzaion.
  - Talaimendi urbanizatzeko kontratua 2009ko martxoaren 25ean aldatu zen eta 911 mila euroan garestitu; hilabete bereko egiaztagirian lurra mugitzeko kapituluaren unitate berriak barne hartu dira, 384 mila eurokoak; horien zenbatekoa eta izaera aintzat hartuta, formalki onetsi aurretik egikaritu ziren.
  - Azoka eraberritzeko eta udal bulego berriak egiteko lanetan 487 mila euroko aldaketak egin ziren (udaletxe zaharrean berogailu instalakuntzak); aldaketa horiek, ordea, ez ziren aldaketa modura izapidetu, proiektuko beste atal batzuetan egindako murrizketekin konpentsatu baitziren.
4. 2009ko otsailean udal ordezkariak udal aretoen garbiketa zerbitzuaren prezioak berrikusteko konpromisoa hartu zuten (501 mila euroko zenbatekoarekin esleitutakoa



2007an), zerbitzuaren esleipen hartzaile zen enpresak bere langileekin adostutako soldata igoeren eragina jasotzeko (2010 eta 2011n balioetsitako kostua, 94 mila eurokoa); ordea, berrikuste aukera hori ez zegoen kontratuaren pleguetan aurreikusia. Horrezaz gain, 2009ko otsaileko akordia aldez aurretik fiskalizatu gabe izenpetu zen (C akatsa, A.11 eranskinean).

## BESTELAKOAK

5. Alkateak 2009ko otsailaren 6an hitzarmen bat izenpetu zuen Uraren Euskal Agentziarekin; horren indarrez, Udalak 2009 eta 2010ean hainbat obra egiteko konpromisoa hartu zuen, 4.454 mila euroko zenbatekoarekin presupuestatu zirenak. Diru-laguntzek inbertsioak oso-osorik finantzatu behar dituztela aurreikusten den arren, geroko aurrekontuak lotzen direlako, hori Osokoak onetsi behar zukeen. Gainera, hitzarmena aldez aurretik fiskalizatu gabe izenpetu zen.

Epaitegi honen iritzira, Zarauzko Udalak, 1etik 5era bitarteko idatz-zatietan aipatutako lege hausteak alde batera, zuzentasunez bete du 2009ko ekitaldian ekonomia-finantzaren jarduera arautzen duen lege arautegia.

### I.1.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA

2009ko Udal Finantzaketarako Foru Fondoak 2009an izandako likidazioa negatiboa izan da 3.076 mila euroko zenbatekoarekin; kopuru hori 2011, 2012 eta 2013ko urteetan itzuliko da (Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Aurrekontu Orokorren 3/2009 FAREN Xedapen Gehigarri 9.a) eta ekitaldi horien konturako ordainketetatik murriztu. Berebat, 2008ko likidazio negatiboa 2009 eta 2010ean murriztuko da; 2009ko abenduaren 31n 847 mila euro daude ordaintzeko. Udalak likidazio negatiboak sarrera txiki modura kontabilizatu ditu eta aurrekontuz kanpoko hartzekodunetan barne hartu da 2009ko abenduaren 31n ordaindu beharreko saldoa. Kontularitzako erregistro honek diruzaintza geldikina 3.076 mila euroko zenbatekoan murriztea eragin du eta ondorioz, 2009ko abenduaren 31n 1.706 mila euroko zenbateko negatiboa erakutsi du.

1. Udalak 2002an ibilgetuaren balorazioak aztertu eta idazpuruetakoko saldo globalak aldatu zituen aurrekontuen kontabilitatean jasotako informazioa baliatuta. Hala eta guztiz ere, ez du ibilgetua eragiten duten egintza ekonomiko guztien kontularitzako erregistroa bermatuko duen jarraipenik egiten eta zehazki, ez du ibilgetuaren elementu bakoitzeko xehapenik egiten.
2. Hona hemen 2009ko abenduaren 31n gastu orokorretarako Diruzaintza Geldikinak, data horretan itxitako Egoera Balantzeak eta Funts Propioak eragiten dituzten doiketak:



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

Euroak milakotan

Eranskina	Kontzeptua	Aurrekontuzkoa		Ondarezkoa	
		Diruzaintza geldikina	Aktiboa	Pasiboa	Funts propioak
<b>09.12.31n sortutako eta erregistratu gabeko eskubideak</b>					
A.3	2009ko 4. hiruhileko ura, estolderia eta azpieg. kanonaren tasak .....	1.331	1.331	-	1.331
A.6	Urola Kosta Mankom. Itzulketak, 2008 eta 2009ko likidazioen berrikusp. ....	330	330	-	330
-	Etxez etxeko laguntzari diru-lag.: 2009ko 4. hiruhilekoa .....	81	81	-	81
-	Kanon aldakorraren likidazioa, aparkalekuen kudeaketa-TAO.....	69	69	-	69
<b>Sortutako obligazioak, 09.12.31n erregistratu gabeak</b>					
-	Bide garbiketa eta zaborrak jasotzea: Uztailak 1-irailak 16 eta likid.....	(371)	-	371	(371)
-	Argindarra eta 2010 apiril. Osokoa aitort. beste gastu batzuk .....	(137)	-	137	(137)
<b>Beste batzuk</b>					
A.8	Kaudimengabeziatarako zuzkiduran akatsa .....	(736)	(736)		(736)
A.7	Erabili gabeko maileguengatik aurrekontuko zordunak .....	(2.814)	(2.814)	(2.814)	
A.6	Geroratutako hondakinen isurketa tasa (Urola Kosta Mank.) .....	-	-	991	(991)
<b>GUZTIRA</b>		<b>(2.247)</b>	<b>(1.739)</b>	<b>(1.315)</b>	<b>(424)</b>

3. Kontularitzan erregistrorik ez duten ondoko urteanitzeko gastuak azaleratu zaizkigu:

- Zarautz-Lur, SA sozietateak 2008ko urtean Arte Eszenikoen Zentroaren lanen proiektua eta zuzendaritza egiteko kontratua esleitu zuen 2.500 mila euroko zenbatekoarekin. Kontratu hau udal ekarpenekin finantzatzen denez gero, Udalak zegokion urteanitzekoa onetsi behar izan zuen; honela, bada, 1.875 mila eurokoak izan ziren etorkizuneko aurrekontuen kontura aurreikusitako ordainketak.

Epaitegi honen iritzira, 1etik 3ra bitarteko idatz-zatietan azaleratutako salbuespenak alde batera, Zarauzko Udalaren Kontu Orokorrak alderdi esanguratsu guztietan 2009ko ekitaldiaren jardura ekonomikoa, ondarearen eta 2009ko abenduaren 31ko finantza egoeraren isla leiala eta ekitaldian eragiketen emaitzak erakusten ditu.

## I.2 ERAKUNDE AUTONOMOAK ETA SOZIETATE PUBLIKOA

### I.2.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

#### KONTRATAZIOA (Ikus A.12.3 Eranskina)

1. Kirol Patronatua erakundeak 2005eko ekitaldian garbiketa zerbitzua 62 mila euroko zenbatekoarekin esleitu zuen; kontratuak 2006ko abenduaren 31ra arte irautea aurreikusi zen. Nahiz kontratua iraungia zegoen eta zerbitzuak aldaketa handiak izan zituen, erakunde autonomoak 2009ko urtean zehar kontratuari indarrean eutsi zion 301 mila euroko zenbatekoarekin.
2. Zarautz-Lur, SA sozietateak 3 kontratu publizitate eta lehiarik gabe esleitu zituen guztira 377 mila euroko zenbatekoarekin. Bi kasutan prozedura ireki bitartez esleitu behar zatekeen eta hirugarrenean, publizitate bidezko prozedura negoziatu bidez. Gainera, hiru kontratuak sozietatearen Idazkariordeak esleitu zituen, nahiz banakako kopuruak 12 mila euroko muga gainditu, eskuordetu zitzaizkion botereek jasotzen zuten gehiengo muga.





Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

Epaitegi honen iritzira, 1 eta 2 idatz-zatietan azaldutako ez-betetzeak salbuetsita, Zarauzko Udalaren bi erakunde autonomoek eta Zarautz-Lur, SA sozietateak zuzentasunez bete dute 2009ko ekitaldian ekonomia-finantzaren jarduera arautzen duen lege arautegia.

## I.2.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA

1. Kirol Patronatua erakunde autonomoak ez du ibilgetuaren gaikako xehapenik eta ez du ibilgetua eragiten duten egintza ekonomiko guztien kontularitzako erregistroa bermatuko duen jarraipenik egiten.

Epaitegi honen iritzira, aurreko idatz-zatiko salbuespena salbuetsita, Zarauzko Udalaren bi erakunde autonomoen Kontu Orokorrak eta Zarautz-Lur, SAREN Finantza Egoerak alderdi esanguratsu guztietan erakusten dute 2009ko ekitaldiaren jarduera ekonomikoa, ondarearen eta 2009ko abenduaren 31ko finantza egoeraren isla leiala eta ekitaldian bere eragiketen emaitzena.

## II. BARNE KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK

### II.1 AURREKONTUA ETA KONTABILITATEA

1. 2009ko ekitaldirako aurrekontua 2009ko apirilaren 8ko osokoak behin-betiko onetsi zuen; ordea, arautegiak (21/2003 FAREN 15. art.) behin-betiko urtea hasi aurretik onestea aurreikusten du. 2009ko Kontu Orokorra izapidetzean ere atzeraldiak izan ziren, Osokoak 2010eko abenduan onetsi baitzuen; arautegiak, ordea, (21/2003 FAREN 63.4 art.) uztailearen 31 baino lehenago onestea aurreikusten du.
2. Tokiko sektorearen aurrekontuaren egiturak ez du bitarteko funtzionarioentzat berariazko izendapenik aurreikusten, ohikoena plaza hutsa betetzea baita. Ordea, behin-behineko funtzionarioak gaixotasun bajak betetzeko, programa zehatzak garatzeko edo lan metaketari aurre egiteko ere kontratatzen dira eta honenbestez, komeniko litzateke bereizitako diru-izendapenak erabiltzea dagokien aurrekontuko aurreikuspenarekin, aldi bateko lan kontratupeko kontratazioetarako eskatzen den moduan. 2009an zehar behin-behineko 141 funtzionariok 1.888 mila euroko ordainsariak jaso zituzten eta hori guztia langile funtzionarioen diru-izendapenei egotzi zitzaizkien; horren ondorioz, kontularitzan ezin bereizi izan ziren aurrekontu egindako plaza baten kontura gauzatutako kontratazioak.
3. 2009ko abenduaren 15ean Udalak 67 mila euroko zenbatekoarekin altzarien hornidura kontratatu zuen, horretarako aurrekontuan diru-izendapenik izan gabe; horrek aurrekontu kontrolerako araudia urratzen du. Gerora, gastua aitortu ahal izan zen, gastuaren beste kontu-sail batzuetan geldikinak izan zirenean. Gastua baimentzeko



behar hainbateko krediturik ez zegoela urrian agertu zen eta horrek inbertsioen aurrekontuan aldaketak eragin behar zituzkeen.

4. 2009ko aurrekontu exekuziorako araudiak exekuzio faseak (ADO) metatzea bideratzen du erosketak munta txikikoak direnean (1.500 euro) eta horrek gastua gauzatu ondoren izapidetu eta erregistratzeko bide ematen du. Kopuru horren gainetik egindako erosketak azaleratu dira, arauzko izapiderik gabe esleitu direnak.
5. TAO-Aparkalekuaren erregulazio tasa zerbitzua kudeatzen duen enpresak biltzen du eta kontratuan aurreikusia dago zerbitzuaren kostuarekin konpentsatzea. Udalak kopuru garbiak erregistratzen ditu eta ez zerbitzuaren sarrera eta gastuak bereizirik.
6. 2009ko aurrekontuari 2008ko urtea baino lehenagoko izendapenak txertatu zaizkio, 3,2 milioi euroko zenbatekoarekin. Aurrekontu-araudiak ez du txertaketa jarraiturik egiten uzten, nola eta inbertsioa ez den diru-sarrera helburudunarekin finantzatzen. Udalak kategoría honetan kobratzeko dauden aitortutako maileguak barne hartu ditu, baina maileguak sarrera modura aitortzeak ez du justifikatzen sarrera helburuduntzat hartzea; izan ere, ez dituzte obra jakinak finantzatzen eta Udalak ez ditu konpromisoak hartu hirugarrenen aurrean inbertsio horiek exekutatzeko.
7. Udalak Egoera Balantzearen epe luzeko Hartzekodunen idazpuruan Udal Finantzaketarako Foru Fondotik 2009ko likidazio kontzeptuan ordaindu beharreko saldoak barne hartu behar lituzke, izan ere, 2011, 2012 eta 2013ko urteetan ordaindu behar baitira.

## II.2 LANGILEAK

8. Udalak Zarauzko Lanbide edo INEMeko zerbitzuak baliatu zituen 7 gizarte laguntzaile aldi baterako kontratatzeko, 2007an sortutako lan poltsa agortua zegoelako. Gainera, 2009an 2009-2010 ikasturterako euskarazko 5 irakasle kontratatu zituen eta horretarako, lau kasutan 1996an sortutako lan poltsa bat eta bestean beste udal batekoa erabili zituen. Prozesu hauei emandako publizitateak zabalagoa behar zukeen izan, prentsa nahiz aldizkari ofizialetara joaz; halaber, lan-poltsa zaharrak gaurkotu egin behar dira.
9. 2009ko urtean aldi baterako 75 kontratazio gauzatu ziren eta horiek 1.147 mila euroko soldatak eskuratu zituzten, ordainsari guztien gainean % 17 egiten duena. Kontratazio hauen zenbateko altua uda sasoiko unean uneko beharriaz justifikatzen dute; baita, 152 lanpostuko plantillan 42 lanpostu huts izateak ere. 2008ko Enplegu Publikoaren Eskaintzan 25 plaza iragarri ziren eta 2009an 33 iragarri ziren, baina deialdirik egin gabe.
10. Lanpostu Zerrendak lanpostu bakoitzari dagozkion ordainsariak zehazterakoan, toki sektoreko hitzarmenaren ordainsari maila adierazten du (Udalhitz), lanpostu bakoitzari dagokion lanpostu-mailako osagarria eta berariazkoa bereizi beharrean (EFPLren 15.2 art.).
11. Udalkide eta aldi baterako langileek guztira 804 mila euroko ordainsariak jaso dituzte eta soldata guztien gainean % 12 egiten dute. Honela, bada, 2009ko abenduaren 31n Alkateak eta 13 zinegotzik dedikazio ehuneko ezberdineko ordainsariak jasotzen



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

zituzten. Gainera, bileretara joateagatiko kalteordainak hilabeteko kopuru zehatz bat finkatuta arautu ziren, egiaz joan izanarekin lotu beharrean.

## II.3 DIRU-LAGUNTZAK

### Diru-laguntza izendunak

12. Musika Bandari eta Artezaleak taldeari laguntzak emateko ebazpenak:

- Laguntzen helburua: Ez dute zehaztasunez adierazten laguntzak jasotzeko eskubidea izateko zein jarduera gauzatu behar diren (Diru-laguntzen Agindu Orokorren 10.4 art.). Laguntzak jardueraren hainbat adierazlerekin ere lotu litezke: Ikasle kopurua, emandako ikastorduak, jarduera kopurura, irekiera orduak, e.a. Honi dagokionez, oroitidazki justifikagarrian diru-laguntza gai diren jardueren gaineko estatistika xehatuak eskatu behar lirateke.
- Justifikazioaren erregulazioa: Laguntzaren zenbatekoa osatu arteko justifikagiriak aurkezteko eskatzen da, diru-laguntza gai den jardueraren guztizko kostua egiaztatu beharrean (Diru-laguntzen Agindu Orokorren 22.1.d art.). Gainera, gastu orokorrak egozteagatik salbuespen partziala barne hartzen dute; ordea, ez dagokio hori aplikatzea elkartearen jarduera nagusia finantzatzen denean.

13. Musika Bandak egiaztagiri modura hartu-agiriak aurkezten ditu, dagozkion atxikipen fiskalak egin izana erasota utzi gabe; hartu-agiriak 29 mila eurokoak dira eta 10 hartzaileri dagozkio. Justifikatutako kostu nagusia zuzendariak egindakoa da (% 46); komenigarria litzateke gauzatutako jarduerak zehaztea.

### Deialdi bidez emandako diru-laguntzak

14. Kooperaziorako laguntzek neurtutako lau irizpide aurreikusten dituzte eta horiek aldi berean azpi-irizpideetan banatzen dira, barruan neurtzen direnak. Komenigarria litzateke deialdian eskabideak balioztatzeke erabilitako azpi-irizpide horiek jasotzea.

15. Gizarte ongizateari dagozkion diru-laguntzen udal erregulazioak % 100eko aurrerakina baimentzen du ordainketa sistema orokor modura. Aurrerakina aparteko ordainketa moldea da eta hori baliatzeko beharra kasu bakoitzean justifikatu beharko litzateke (38/03 Legearen 38.4 art.); halaber, laguntzak jasotzen dituenaren kaudimena ere egiaztatu beharko litzateke. Berebat, komenigarria da laguntzaren zati bat ez ordaintzea harik eta egiaztatzen ez den arte, baldintza hori betetzea sustatzeko.

16. Udalak laguntzak emateko ekintzen berri Udalaren iragarki oholean eta web orrian ematen du. Arautegiak agintzen du (38/03 Legearen 18. art.) emakida-erabakia aldizkari ofizialean ere argitaratu behar dela eta horren edukia non dagoen ikusgai adierazi.

### Beste batzuk

17. Hiri barruko garraio zerbitzuaren emakidadunari emandako laguntzetan aleko prezioak ez dira 2006az geroztik eguneratu. Gainera, Foru Ogasunari ordainketa hauek diru-



laguntzat har daitezkeen kontsulta dakioko, horrek BEZ salbuestea planteatzeko bide emango bailuke.

18. Kirol Patronatua eta Turismo Bulegoa erakunde autonomoek, hurrenez hurren, 187 eta 226 mila euroko diru-laguntzak eman zituzten; Kirol Patronatuak kirol erakundeei emandako haiek barne hartzen ditu; aldiz, lehiaketa garrantzitsuak antolatzen emandakoak Turismo Bulegotik kudeatzen dira. Erakunde honek hainbat erakunderi ematen zaizkien diru-laguntzak ere kudeatzen ditu, aldi berean Udalaren laguntzak jasotzen dituztenak; komenigarria irizten diogu laguntzen emakida Udalean bertan zentralizatzea.

## II.4 KONTRATAZIOA

Fiskalizazio-gai izan den urtean indarrean zeuden 12 kontratu nagusiak aztertu ondoren, honako alderdi hauek azaleratu zaizkigu (ikus A.11):

### Espedientea eta esleipena

19. Zazpi espedienteren pleguek, 16.191 mila euroko esleipenak eragin zituztenak, kontratatu beharreko obra edo zerbitzuarekin zuzenean loturik ez zeuden balorazio irizpideak barne hartzen zituzten (APKLTBren 86.1 art.). Bost kasutan hondakinen kudeaketari buruzko irizpide orokor bat adierazi zen eta lehiatzaileek egiaztagiri jakin bat izatea balioztatu zen. Beste bi kontratutan esleipen irizpidetzat egoitza sozialaren gertutasuna barne hartu zen eta lehiatzaileen langileen gaitasuna balioztatu (A1 akatsa A.11 eranskinean).
20. Guztira 33.969 mila euroko zenbatekoarekin esleitutako 9 kontraturen pleguek merkatze ehuneko batetik behera eskaintza ekonomikoenak zigortzen dituzten formula aritmetikoak barne hartzen dituzte (A2 akatsa A.11 eranskinean).
21. Bi zerbitzu kontratutan, lehenengo ekitaldirako 1.188 mila euroko esleipen kostua izan dutenak, urteko luzapenak aurreikusi dira; ordea, arautegiak (APKLTBren 198. art.) hasierako epe berberarekin luzapen bakarria egitea aurreikusten du. Bi urteetan berariaz adierazi da kontratuen iraupena ez dela 4 urtetik gorakoa izango, horixe baita zerbitzu kontratuetarako gehiengo epea (A3 akatsa A.11 eranskinean).
22. Guztira 9.034 mila euroko zenbatekoarekin esleitutako 4 kontraturen pleguek balorazio irizpide modura barne hartzen dute hobekuntzak aurkeztea, zein diren hobetu daitezkeen alderdiak zehaztu gabe eta proposatutako hobekuntzaren balioa nola neurtuko den adierazi gabe (A4 akatsa A.11 eranskinean).

Horrez gain, Udalak ez du mamitzen obra proiektuak gainbegiratzeko nahitaezko txostena, arautegi legezko eta teknikoaren ezarri dela egiaztatuko duena (APKLTBren 128. art. eta SPKLren 109. art.). Betekizun hau bereziki garrantzitsua gerta daiteke udal zerbitzu teknikoaren ohiko arribide ez diren proiektuetan.

### Exekuzioa eta harrera

23. Kale garbiketa eta zabor bilketa kontratua 1999ko martxoan esleitu zen eta 2008ko abenduaren 31n amaitu zitzaion indarraldia. Ordea, 2009ko irailera arte eutsi zion indarrean (1.075 mila euroko kostuarekin), hilabete horretan bertan esleitutako kontratua betetzen hasi zenean.
24. Udalak 8.346 euroan esleitutako 3 obra kontratutan ez da zuinketaren egiaztapen akta gauzatu (APKLTBren 142. art.) edo arautegiak agintzen duen hilabeteko epearekiko atzerapenez onetsi da. Data horrek zehazten du egiteko epearen hasiera (B3 akatsa A.11 eranskinean)
25. Lau obra kontratutan, 15.644 mila euroko zenbatekoarekin esleitutakoetan, exekuzioa betetzeko epea baino haratago luzatu da, epe luzapen horretarako luzapenik batere gauzatu gabe (APKLTBren 95. art. eta SPKLren 197. art.) (B4 akatsa A.11 eranskinean)
26. 13.417 mila euroko zenbatekoarekin esleitutako 3 obra kontratutan, kontratazio atalak azken egiaztagiria obrak hartu edo amaitu zirenetik 2 hilabete baino gehiago (APKLTBren 147. art.) igaroak direla onetsi du (B5 akatsa A.11 eranskinean)
27. Guztira 1.212 mila euroko zenbatekoarekin esleitutako hiru kontraturen luzapenak kontratua amaitu ostean onetsi zituzten, isilpeko luzapenak egin zirela (B6 akatsa A.11 eranskinean).
28. Guztira 10.760 mila euroko zenbatekoarekin esleitutako bi obratan, desadostasunak izan dira egiazko eta/edo aurreikusitako exekuzioaren eta aurrekontuko diru-izendapenen artean. Bi kasuetan atzerapenak izan ziren exekuzioan eta horiek diru-izendapenetan zegokion doiketa egitea eskatzen zuen (B7 akatsa A.11 eranskinean).

### Beste alderdi batzuk

29. Lehiatzaileek aurkeztutako eskaintzen faktore ekonomikoa % 30 eta % 40 bitartean izenez balioztatzen zen aztertutako bost obratan. Aplikaturako formularen eraginez (merkatze ehuneko puntu bakoitzeko 1,75 puntu) eskaintza ekonomiko merkeenak egiaz eskuratutako puntuazioa, puntu guztien artean % 8,75 eta 30 bitartekoa izan da. Erabilitako formulazioa alda liteke, faktore ekonomikoak nominaletik gertuago dagoen egiazko pisu espezifikoak izan dezan.
30. Berogailu eta ur beroaren instalakuntzak kudeatzeko kontratua hornidurako kontratu modura sailkatu zen, ezaugarri honek baitzuen pisu ekonomiko handiena. Ordea, kontratu honen prestazio ugarien kontratu-moldeak arazoak sortu zituen, ez baitzuen inbertsio aurrekonturik barne hartzen, ez horiek egiteko eperik arautzen (C akatsa A.11 eranskinean).
31. Arte eszenikoen zentroari laguntza teknikoa emateko kontratuan ez da justifikatzen prezioak berrikustea aplika ezina dela, nahiz zerbitzuak 4 urte arte luzatu. Espedientean jasoa behar luke egon aplikaezintasun horren zergatia (C akatsa A.11 eranskinean).



## II.5 TOKI ERAKUNDE AUTONOMOAK ETA SOZIJETATE PUBLIKOAK

### Orokorra

32. Erakunde autonomoen kudeaketa administratiboa Udalean dago zentralizatua eta duen izaera administratiboa aintzat hartuta, kudeaketa gainerako zeinahi udal sailen parekoa da. Pertsona juridiko bereziak izateak berezko atalen mantentze kostuak eta administrazio kostuak eragiten ditu; komenigarria litzateke molde horrek eragiten dituen abantailekin alderatzea.

### Langileria

33. Turismo Bulegoa: 2009ko aurrekontu-plantillak aldi baterako langileentzat 4 lanpostu barne hartzen ditu, erakundeak uda sasoiari jarduerari gehitzen denean aurre egiteko beharrezko dituenak. Aurreikuspen hauek ez ziren behar hainbatekoak izan 2009an eta uztailean eta abuztuan indarrean aldi baterako 6 kontratu ere izatera iritsiaz. Behar horiek iraunkorrak direla eta horiek betetzeko udal erakundeaz besteko langileak kontratatzea beste aukerarik ez dagoela aurreikusten bada, aldizkako kontratu finkoen aukera aztertu behar litzateke.

### Diru-laguntzak

34. Turismo Bulegoa: Aurrekontuak 17 diru-laguntza izenduneko multzoa besarkatzen du; diru-laguntza horiek guztira 67 mila euro egiten dituzte eta antzeko helburua dute (kultura eta kirol ospakizunak antolatzea). Kirol ekintzetarako beste bi diru-laguntza, guztira 55 mila eurokoak, zuzenean eman ziren 2009an. Laguntza hauek guztiek helburu antzekoa dute eta oinarri arautzaile bidez arautu daitezke; honela, bada, parametro objektiboak jaso behar dira laguntzak banatzeko eta diru-izendapen izenduna berariazkoen diren haien zati gorde.

35. Turismo Bulegoa: Itsas pasealekuko ostalariei ekaitzak eragindako kalteengatik 30 mila euroko laguntza eman zitzaizkien; ordea, laguntza horiek 4 ostalarik baizik ez zituzten eskuratu, bakoitzak egindako inbertsio jakin batzuen arabera. Balizko onuradun kopurua mugatua zen arren, jakinarazpen formal baten bidez deialdia egin behar zitzaiekeen balizko onuradun guztiei eta alde aurretik jakinarazi laguntzak banatzeko erabiliko ziren irizpideak zeintzuk izango ziren. Bestalde, kirol sarien ordainketa egiterakoan hartzaileak gizarte eta zerga obligazioetan eguneratuak zeudelako egiaztaketarik ez zen batere egin.

36. Kirol Patronatua: Eskolaz kanpoko jardueretarako diru-laguntzak (51 mila euro) 2008ko urrian deitu ziren, ikastetxeen artean banaketarako irizpideak ezarriko zituzten eta horien irizpidea arautuko zuten oinarri-arauak zehaztu gabe.

### Kontratazioa (ikus A.12.3)

37. Kirol Patronatua: Astiko instalakuntzak mantentzeko kontratua prozedura negoziatu bidez esleitu behar zatekeen. Kontratu honek 2009an 62 mila euroko kostua eragin zuen.



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

38. Zarautz-Lur, SA 3 laguntza kontratu esleitu zituen (azterketa geotekniko bat, proiektu bat eta obra baten zuzendaritza), guztira 123 mila euro egin zutenak, eta nahitaezko diren 3 eskaintzak egiteko eskatu gabe.

### III. FINANTZEN ANALISIA

Udalak azken ekitaldietan likidatutako magnitude nagusien bilakaera ondoko taulan dago zehaztua. Konparazio ondorioetarako, 20.001 eta 50.000 biztanle bitarteko Gipuzkoako eta Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) udalen batez bestekoen 2007ko ekitaldiari buruzko datuak barne hartu dira (eskuragarri dauden azken datuak).

FINANTZEN ANALISIA	Milako eurotan			Euroak biztanleko				
	Urtea			Urtea			_Erref. 2007_	
	07(*)	08(*)	09	07	08	09	Gip.	EAE
Zerga zuzenak, zeharkakoak eta tasak (1, 2 eta 3 kap.).....	10.520	11.339	12.049	471	508	539	475	424
Transferentzia eta diru-laguntza arruntak (4. kap.).....	14.444	14.115	12.668	647	633	568	676	722
Ondare sarrerak (5. kap.).....	375	267	211	17	12	9	12	27
<b>A. Diru-sarrera arruntak .....</b>	<b>25.339</b>	<b>25.721</b>	<b>24.928</b>	<b>1.135</b>	<b>1.153</b>	<b>1.116</b>	<b>1.163</b>	<b>1.173</b>
Langileria gastuak (1. kap.).....	7.178	8.446	8.853	322	378	397	352	348
Ondasun arrunten erosketak eta zerbitzuak (2. kap.).....	9.368	10.210	9.694	420	458	434	323	366
Transferentzia eta diru-laguntza arruntak (4. kap.).....	5.199	4.996	5.752	233	224	258	209	166
<b>B. Funtzionamendu gastuak .....</b>	<b>21.745</b>	<b>23.652</b>	<b>24.299</b>	<b>975</b>	<b>1.060</b>	<b>1.089</b>	<b>884</b>	<b>880</b>
<b>Aurrezki gordina (A-B) .....</b>	<b>3.594</b>	<b>2.069</b>	<b>629</b>	<b>160</b>	<b>93</b>	<b>27</b>	<b>279</b>	<b>293</b>
- Finantza gastuak (3. kap.).....	361	447	284	16	20	13	15	7
<b>Emaitza arrunta .....</b>	<b>3.233</b>	<b>1.622</b>	<b>344</b>	<b>144</b>	<b>73</b>	<b>14</b>	<b>264</b>	<b>286</b>
-Maileguen amortizazioa (9. kap.).....	771	771	1.009	35	35	45	50	48
<b>Aurrezki garbia .....</b>	<b>2.462</b>	<b>851</b>	<b>(665)</b>	<b>109</b>	<b>38</b>	<b>(31)</b>	<b>214</b>	<b>238</b>
Inbertsio errealeen besterentzea (6. kap.).....	1.194	3.720	2.419	54	167	108	157	115
Jasotako kapital diru-laguntzak (7. kap.).....	174	369	4.013	8	17	180	56	70
- Inbertsio errealak (6. kap.).....	6.317	8.626	13.470	283	387	604	387	317
- Kapital transf. eta diru-lag. (7. kap.).....	758	1.566	2.119	34	70	95	46	24
<b>Kapitalezko eragiketaren emaitza.....</b>	<b>(5.707)</b>	<b>(6.103)</b>	<b>(9.157)</b>	<b>(255)</b>	<b>(273)</b>	<b>(411)</b>	<b>(220)</b>	<b>(156)</b>
Eragiketa ez finantzarioen emaitza (1etik 7rako kap.)..	(2.474)	(4.481)	(8.813)	(111)	(200)	(397)	44	130
<b>Diruzaintza geldikin likidoa:.....</b>	<b>4.236</b>	<b>3.345</b>	<b>(1.004)</b>	<b>209</b>	<b>186</b>	<b>(19)</b>	<b>277</b>	<b>501</b>
<b>12.31n zorpetzea (zor saldorik gabe).....</b>	<b>8.816</b>	<b>9.271</b>	<b>16.763</b>	<b>395</b>	<b>416</b>	<b>751</b>	<b>410</b>	<b>149</b>

(\*) HKEEk fiskalizatu gabeko datuak.

Iturria: Toki Erakundearen Kontuei buruzko HKEEren 2007ko txostena. "Gip." Eta "EAE" erreferentziak, 20.001 eta 50.000 biztanle bitartean dituzten Gipuzkoa eta EAEko udalen datuei dagozkie.

**Sarrera arruntak:** 0,4 milioi euro egin dute behera 2007 eta 2009ko urteen artean; 2008an % 1,5eko igoera izan zuen eta 2009an, berriz, % 3ko beheraldia; gainera, jokamolde ezberdina izan dute berezko sarrerak batetik (1etik 3ra bitarteko kapituluak) eta beste administrazio batzuetatik eratorritakoek (4. kapitulua).



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

- **Zerga zuzenak, zeharkakoak eta tasak:** 1,5 milioi egin dute gora epe horretan (% 14,5), osagai nagusi guztietan igoerak izan dituztela. 2008 eta 2009rako agindu fiskalak aldatu zirenean, Udalak % 2,3 eta % 4,9ko igoerak ezarri zituen; salbuespena zabor bilketako zerbitzuak izan zuen, igoera % 15 eta % 20koa izan baitzen. Zerbitzu hau finantzatzeko duen tasa, isunak eta Eraikuntza, Instalakuntza eta Obren gaineko Zerga dira igoerarik handien izan duten kontzeptuak.
- **Transferentziak eta diru laguntzak:** 2007-2009 aldian 1,8 milioi euro murriztu dira (% 12). Osagai nagusia Itunpeko zergetan partaidetza da eta honek 2008an beheraldi txiki bat izan du, hurrengo ekitaldian areagotuko dena; epe aldian zehar sarrera honen zenbatekoa 2,3 milioi eurotan murriztu da. Udalak sortzen diren diru-sarrerak erregistratzen dituela azpimarratu behar da, hurrengo urtean egiten den likidazioa barne; likidazio hori negatiboa izan zen 2008 eta 2009an eta 2009-2013 aldian kitatu beharreko itzulketak eragin zituen.

**Funtzionamendu gastuak:** 2007 eta 2009 bitartean 2,6 milioi euro egiten dute gora, 2008an igoera % 9koa izanik eta 2009an, berriz, % 3koa.

- **Langile gastuek** % 18 egin dute gora 2008an eta % 5, 2009an. Udaltzuek 2008/10erako ezarri zituen igoerak % 5,2 eta % 2,4koak izan ziren. Gainera, udaltzaingoak kategoria aldatzea hitzartu zen; honi kontratazioak areagotzea eta izendapenezko zein behin-behingo langileria gehitzea lotzen badiogu, gastuen kapitulu honetan igoera 1,7 milioi eurokoa izatea dakar.
- **Erosketa arruntak eta diru-laguntzak** osotasunean 0,9 milioi euro gehitzen dira epe horretan (% 6). Diru-laguntzak erosketak baino gehiago areagotu ziren, izan ere, hiri hondakinen tratamenduak eragindako ekarpenak 2. kapitulutik 4.era aldatu baitziren; 2009ko uztailetik aurrera, Gipuzkoako Hondakinen Partzuergoa abian jartzeaz batera, Urola Kostako Mankomunitateari ekarpenak eginda ordaintzen dira (0,4 milioi euro). Lehenago, berriz, erosketa arrunten kapituluaren erregistratzen ziren.

**Aurrezki gordina:** Aurrezki Gordinaren beheraldia % 42koa izan da 2008an eta % 70ekoa 2009an; honela, bada, aztergai izan dugun hirurtekoan 3,6 egitetik 0,6 milioi eurokoa izatera aldatu da, sarrera arruntan % 2,5 soilik. Beheraldiaren arrazoi nagusiak dira, batetik, itunpeko zergen diru-bilketan partaidetza sarrerak murriztu izana eta bestetik, gastu arruntek gora egin izana, 2007an sortutako aurrezki (sarreraren % 14) irentsi dutenak. Edonola ere, zehaztu behar da 2009an Udaltzaren Finantzaketarako Foru Fondoaren likidazioa barne hartu dela, 3,1 milioi eurokoa dena; likidazio hori 2011tik aurrera 3 urtekoan da eskagarria.

**Aurrezki garbia eta zorpetzea:** Aurrezki garbiak finantza zamaren ordainketari aurre egin ondoren erabilgarri geratzen den aurrezki gordinaren atala islatzen du (interesak eta zorraren amortizazioa) eta Udaltzaren baliabide arruntan bidez inbertsioak finantzatzeko duen gaitasuna erakusten du. Finantza zama 2009an gehitu egin zen, urte horretan ekin





baitzitzaion bi maileguren amortizazioari; urte horretan sarrera arrunten % 5 egin zuen. Zorpetzeari dagokionez, 2009an 8,5 milioi euroko maileguak erabili ziren eta 2009ko abenduaren 31n urte horretako sarrera arrunten % 67 egitera iritsi ziren.

**Kapitalezko eragiketen emaitza:** Epe horretan zehar inbertsio-ahalegina garrantzitsua izan da, 33 milioi euro inbertsio eta kapitalezko diru-laguntza artean; horiek ondoko moduan finantzatu dira: zati batean diru-laguntza bitartez (Toki Inbertsioetarako Estatuko Funtza 2009an); urbanizazio kuotak eraginez (Talaimendi) eta aktiboen salmenta bidez, osotasunean inbertsioen % 36 finantzatu dutenak.

**Diruzaintza geldikina:** Hirurteko hasieran zegoen Geldikina inbertsioei aplikatu zaie eta 2009ko abenduaren 31n milioi bat euroko balio negatiboetara iritsi da. Gogorazi behar da osagai modura Udal Finantzaketarako Foru Funtzaren likidazio negatiboa barne hartzen duela, 3,1 milioi eurokoa eta horren itzulerari 2011n ekin zaiola. Berebat, gogoan izan behar da urteko kontuei buruzko Iritziaren I.1.2 ataleko salbuespenek Diruzaintza Geldikinaren zenbatekoa 2,3 milioi eurotan murrizten dutela.

**Biztanleko ratioak-beste udal batzuekiko alderaketa:** Informazio modura, 20.001 eta 50.000 biztanle bitarteko (geruza honetan baitago udala) Gipuzkoa eta EAEko udalen batez bestekoen 2007ko ekitaldiari buruzko datuak barne hartu ditugu (eskuragarri dauden azken datuak). Udalaren datuekiko alderaketak egin ahal izateko, gogoan hartu behar dira zerbitzuak ematean dauden aldeak, izan ere, zenbaitetan zerbitzuak zuzenean ematen baitira udal administrazioetik bertatik, eta beste zenbaitetan, erakunde autonomo, merkataritza sozietate publikoen bidez edo zeharka, mankomunitate, partzuergo edo merkataritzako beste sozietate batzuen bidez. Alderik adierazgarriena aurrezki gordinari dagokio, 2007an batez bestekoa baino % 43 baxuagoa baitzen eta aztergai izan dugun aldirian, bilakaera negatiboa izan baitu.

**Ondorioa:** Udal Administrazioek egiten dituzten inbertsioen balizko finantzaketa iturriak honako hauek dira: ekitaldi bakoitzean sortzeko gai diren aurrezki garbia, diruzaintza geldikinak eta diru-laguntza bidez edo zorpetze berri baten bidez eskura dezaten kanpoko finantzaketa. Zarauzko Udalak inbertsio handiak finantzatzeko aztergai izan dugun hirurtekoan Zorpetzea (sarrera arrunten % 67, 2009ko abenduaren 31n) eta Geldikina baliatu ditu (milioi bat negatiboa epe amaieran, baina 2,1 milioi eurotan positibo Udal Finantzaketarako Foru Fondoaren likidazioa aintzat hartzen ez bada). Gainera, zerbitzuen gastuak gehitu dira eta ez da egonkortuta dauden edo behera doazen sarrera arrunten eszenategi berriak agintzen duen doiketa gauzatu. Horregatik guztiagatik, Udalak etorkizunean gutxiengo inbertsio batzuk egin nahi baditu, gastuen gainean eragin beharko du eta epe laburrera diru-laguntzak eskuratu edo aktibo zein aparteko izaeradun bestelakoak salduta diru-sarrerak eskuratzearen baitako izango da.



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

2010erako aurrekontuak gastu arruntaren igoera % 2,5era mugatzen du eta sarrera arruntak 2009an kitatutakoak baino % 5,2 handiagoak izango direla balioetsi du; horrekin eragiketa arruntak orekatzea lortzen du. Aurreikusitako kapitalezko gastuak (4,5 milioi kapitalezko diru-laguntza eta inbertsioen artean) aurreko urteetan baino apalagoak dira eta jada abiarazitako jardueren jarraipen dira. Horiek finantzatzeko ezohiko sarrerak aurrekusi dira, aparkalekuen emakidak 2,8 milioi euroko zenbatekoarekin eta zorpetzea 0,8 milioi euroan gehitzea. Udalak 2010eko ekainean Ekonomia-Finantza Plana onartu zuen 2010-13 urteetarako; bertan, desorekak zuzendu eta toki alorrarentzat aurreikusitako egonkortasun-helburuak betetzeko aurrekontu esparru bat zehaztu zuen.

## IV. URTEKO KONTUAK

### IV.1 UDALA

2009-KO EKITALDIAREN AURREKONTU LIKIDAZIOA

Euroak milakotan

SARRERAK	ERANSK.	AURREKONTUA			ESKUBIDE./ KITAT.	KOB.R./ ORDAIN.	KOB.R. GABEA	% EXEK.
		HASIER.	ALDAK.	B.-BETIK.				
1.- Zerga zuzenak .....	A.3	5.618	-	5.618	5.901	5.510	391	105
2.- Zeharkako zergak .....	A.3	760	-	760	613	566	47	81
3.- Tasak eta bestelako sarrerak .....	A.3	5.016	2	5.018	5.535	4.705	830	110
4.- Transferentzia arruntak .....	A.4	15.178	182	15.360	12.668	12.055	613	82
5.- Ondare sarrerak .....		230	-	230	211	178	33	92
6.- Inbertsio errealen besterentzea .....		1.900	3.068	4.968	2.419	1.479	940	49
7.- Kapitalezko transferentziak .....	A.4	670	4.425	5.095	4.013	2.464	1.549	79
8.- Aktibo finantzarioak .....		25	3.009	3.034	27	6	21	-
9.- Finantza pasiboak .....	A.7	828	7.192	8.020	5.394	2.580	2.814	67
<b>DIRU-SARRERAK GUZTIRA</b>		<b>30.225</b>	<b>17.878</b>	<b>48.103</b>	<b>36.781</b>	<b>29.543</b>	<b>7.238</b>	<b>76</b>
<b>GASTUAK</b>								
1.- Langileria gastuak .....	A.5	8.971	108	9.079	8.853	8.853	-	98
2.- Ondasun arruntan erosk. eta zerb.....		10.115	773	10.888	9.694	7.601	2.093	89
3.- Finantza gastuak .....		538	-	538	284	284	-	53
4.- Transferentzia arruntak .....	A.6	5.940	84	6.024	5.752	4.271	1.481	95
6.- Inbertsio errealen besterentzea .....		1.303	16.674	17.977	13.470	10.856	2.614	75
7.- Kapitalezko transferentziak .....		2.324	229	2.553	2.119	1.859	260	83
8.- Aktibo finantzarioak .....		25	10	35	27	27	-	77
9.- Finantza pasiboak .....	A.7	1.009	-	1.009	1.009	1.009	-	100
<b>GASTUAK GUZTIRA</b>		<b>30.225</b>	<b>17.878</b>	<b>48.103</b>	<b>41.208</b>	<b>34.760</b>	<b>6.448</b>	<b>86</b>
<b>SARRERAK - GASTUAK</b>					<b>(4.427)</b>			



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

	Euroak milakotan			
	HASIER.	KOBR./	AZKEN	
	ZORRA	BALIOG.	ORDAIN.	ZORRA
Zordunak .....	9.694	191	8.055	1.448
Hartzekodunak .....	4.914	37	4.803	74
<b>AURREKONTU ITXIEN EMAITZA</b>	<b>4.780</b>	<b>154</b>	<b>3.252</b>	<b>1.374</b>

	Euroak milakotan
Eskubide kitatuak .....	36.781
Obligazio aitortuak .....	41.208
<b>INDARREKO AURREKONTUKO ERAGIKETA AURREKONTUZKOEN EMAITZA</b>	<b>(4.427)</b>
<b>AURREKO EKITALD. KITATUTAKO AURREKONTU ERAGIKETEN EMAITZA</b>	<b>(154)</b>
<b>EKITALDIAREN AURREKONTU EMAITZA</b>	<b>(4.581)</b>
Finantziazio-desbideraketak .....	(886)
Diruzaintza geldikinarekin finantzatutako gastuak .....	2.087
<b>DOITUTAKO AURREKONTU EMAITZA</b>	<b>(3.380)</b>

	Euroak milakotan
<b>DIRUZAINZAKO GELDIKINA</b>	
Diruzaintza geldikin likidoa 09.1.1ean .....	3.345
Ekitaldiaren aurrekontu emaitza .....	(4.581)
Hutseginen zuzkiduraren bariazioa .....	232
<b>Diruzaintza geldikin likidoa 09.12.31n</b>	<b>(1.004)</b>
Diruzaintza .....	1.846
Aurrekontuko zordunak .....	8.686
Aurrekontuz kanpoko zordunak .....	321
Aurrekontuko hartzekodunak .....	(6.522)
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak .....	(4.756)
Kaudimengabeziatarako zuzkidura .....	(579)
<b>DIRUZAINZAKO GELDIKIN LIKIDOA 09.12.31-N</b>	<b>(1.004)</b>
Finantzaketa atxikia duten gastuetarako Diruzaintza Geldikina .....	(702)
<b>GASTU OROKORRETARAKO DIRUZAINZAKO GELDIKINA</b>	<b>(1.706)</b>
<b>09.12.31-N ZORPETZEA (*)</b>	<b>19.576</b>

(\*) Erabili gabeko maileguak barne hartzen ditu.



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

EGOERAREN BALANTZEA 2009-KO ABENDUAREN 31-N

Euroak milakotan

AKTIBOA	09 URTEA	08 URTEA	PASIBOA	09 URTEA	08 URTEA
<b>IBILGETUA</b>	<b>56.708</b>	<b>51.080</b>	<b>BEREZKO FONDOAK</b>	<b>36.160</b>	<b>39.274</b>
Erabilera orokorrekoa.....	344	309	Ondarea .....	46.692	46.692
Ibilgetu ezmateriala.....	230	291	Atxikitako ondarea.....	(6.218)	(6.218)
Ibilgetu materiala .....	53.348	49.412	Lagatako ondarea .....	(20)	(20)
Lurraren Udal Ondarea.....	1.718	-	Erabilera orokorrerako ondarea.....	(59.765)	(53.723)
Ibilgetu finantzarioa .....	1.068	1.068	Aurreko ekitaldietako emaitzak.....	52.543	52.409
			Galerak eta Irabaziak .....	2.928	134
			<b>HARTZEKODUNAK EPE LUZERA</b>	<b>18.433</b>	<b>14.239</b>
			Finantzetxeen maileguak e/luz. ....	<b>18.377</b>	<b>14.183</b>
<b>ZORDUNAK</b>	<b>8.421</b>	<b>9.098</b>	Bermeak eta gordailuak e/luz.....	56	56
Aurrekontuzkoak .....	8.686	9.694			
Aurrekontuz kanpokoak .....	322	215	<b>HARTZEKODUNAK EPE LABURRERA</b>	<b>12.422</b>	<b>8.301</b>
Kaudimengab. zuzkid. ....	(587)	(811)	Aurrekontuzkoak .....	6.525	4.916
			Bestel. hartzekodun ez aurrekont.....	3.902	1.706
			Entitate publiko hartzekodunak .....	599	551
<b>FINANTZA-KONTUAK</b>	<b>1.886</b>	<b>1.636</b>	Zorrak e/lab. ....	1.199	1.009
Emandako maileguak.....	40	1.441	Bermeak eta gordailuak e/lab.....	108	115
Diruzaintza .....	1.846	195	Aplikatzeko dauden sarrerak.....	89	4
<b>AKTIBOA GUZTIRA</b>	<b>67.015</b>	<b>61.814</b>	<b>PASIBOA GUZTIRA</b>	<b>67.015</b>	<b>61.814</b>

2009-KO EKITALDIAREN GALDU-IRABAZIEN KONTUA

Euroak milakotan

GASTUAK	09 URTEA	08 URTEA	DIRU-SARRERAK	09 URTEA	08 URTEA
Langileen gastuak .....	8.876	8.478	Negozio zifratik zenbateko garbia....	4.181	3.967
Amortizaziorako zuzkidura.....	1.460	1.383	Zerga zuzenak .....	5.901	5.531
Kaudimengab. zuzkid. aldak. ....	(225)	411	Zeharkako zergak .....	613	919
Kanpoko zerbitzuak .....	9.646	9.686	Jasotako transf. eta diru-lag. ....	16.681	14.484
Tributuak .....	366	511	Bestel. kudeaketa sarrerak .....	3.948	2.662
Emandako transf. eta dirul. arruntak....	7.871	6.562	Balore negoziagarrien sarrerak.....	35	151
<b>USTIAKETA MOZKINA</b>	<b>3.330</b>	<b>532</b>			
<b>FINANTZA GASTUA</b>	<b>284</b>	<b>447</b>			
<b>EKIT. ITXIEN GASTUAK</b>	<b>190</b>	<b>160</b>	<b>EKIT. ITXIEN SARRERAK</b>	<b>37</b>	<b>55</b>
<b>APARTEKO EMAITZAK</b>	<b>-</b>	<b>3</b>			
<b>EKITALDIKO MOZKINA</b>	<b>2.928</b>	<b>134</b>			



## IV.2 ERAKUNDE AUTONOMOAK ETA SOZIJETATE PUBLIKOAK

### 2009-KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Euroak milakotan

AITORTUTAKO ESKUBIDEAK	Kirol Patronatua	Turismo Bulegoa
3.- Tasak eta bestelako sarrerak .....	1.292	17
4.- Transferentzia arruntak (A.12.1) .....	1.371	1.379
5.- Ondare sarrerak .....	3	1
7.- Kapitalezko transferentziak (A.12.1) .....	163	-
8.- Aktibo finantzarioak .....	6	-
<b>GUZTIRA</b>	<b>2.835</b>	<b>1.397</b>

### 2009-KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Euroak milakotan

OBLIGAZIO ONARTUAK	Kirol Patronatua	Turismo Bulegoa
1.- Langileria gastuak .....	446	344
2.- Ondasun arrunten erosk. eta zerb. ....	1.635	774
4.- Transferentzia arruntak .....	187	226
5.- Inbertsio errealen besterentzea .....	50	10
7.- Kapitalezko transferentziak .....	42	30
8.- Aktibo finantzarioak .....	5	-
<b>GUZTIRA</b>	<b>2.365</b>	<b>1.384</b>

### AURREKONTUAREN EMAITZA

Euroak milakotan

	Kirol Patronatua	Turismo Bulegoa
Kitatutako eskubideak – Aitortutako obligazioak .....	470	13
Eskubideen baliogabetzea aurrekontu itxietan .....	-	-
<b>AURREKONTUAREN EMAITZA</b>	<b>470</b>	<b>13</b>

### DIRUZAINZAKO GELDIKINA

Euroak milakotan

	Kirol Patronatua	Turismo Bulegoa
<b>KOBRATZEKO DAUDEN ZORDUNAK:</b>		
Diru-sarreretako aurrekontuetakoa, arrunta .....	887	244
Sarreraren aurrekontukoak, itxiak .....	-	-
(Kobratzeko zalantzarako saldoak) .....	-	-
<b>GUZTIRA (A)</b>	<b>887</b>	<b>244</b>
<b>ORDAINTZEKO DAUDEN HARTZEKODUNAK:</b>		
Gastuen aurrekontukoak, arrunta .....	317	214
Gastuen aurrekontukoak, itxiak .....	2	-
Aurrekontuetakoa ez diren beste hainbat operazioetakoak .....	28	22
<b>GUZTIRA (B)</b>	<b>347</b>	<b>236</b>
<b>DIRUZAINZAKO FONDO LIKIDOAK (C)</b>	<b>102</b>	<b>50</b>
<b>DIRUZAINZAKO-GELDIKINA (D=A-B+C)</b>	<b>642</b>	<b>58</b>
<b>FINANTZAKETA ATXIKIA DUTEN GAST. GELDIKINA (E)</b>	<b>-</b>	<b>-</b>
<b>GASTU OROKORRETARAKO GELDIKINA (D-E)</b>	<b>642</b>	<b>58</b>



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

EGOERAREN BALANTZEA 2009-KO ABENDUAREN 31-N

Euroak milakotan

	Kirol Patronatua	Turismo Bulegoa	Zarautz-lur, SA
Ibilgetu materiala .....	3.921	762	816
Finantza inbertsioak e/luz.....	-	-	2
Izakinak (Aldapetan etxeak egiteko txostenak) .....	-	-	118
Aurrekontu zordunak e/lab. ....	887	244	165
Diruzaintza .....	102	50	1.035
<b>AKTIBOA</b>	<b>4.910</b>	<b>1.056</b>	<b>2.136</b>
Ondare garbia / kapital soziala .....	5.486	766	100
Erretsebak eta emaitzak .....	(923)	54	(361)
Jasotako diru-laguntzak .....	(A. 12.1) -	-	1.105
Pasibo ez arrunta (e/luz. aldizkakotzeak) .....	-	5	100
Aurrekontuko hartzekodunak .....	320	214	413
Entitate publiko hartzekodunak eta beste .....	27	16	114
e/lab. aldizkakotzeak.....	-	1	665
<b>ONDARE GARBIA ETA PASIBOA</b>	<b>4.910</b>	<b>1.056</b>	<b>2.136</b>

GALDU-IRABAZIEN KONTUAK 2009

Euroak milakotan

ZOR	Kirol Patronatua	Turismo Bulegoa	Zarautz-lur, SA
Langileen gastuak .....	447	349	65
Kanpoko zerbitzuak .....	1.636	770	884
Emandako transferentzia eta dirulaguntzak.....	228	256	-
Bestelako gastuak .....	199	17	8
<b>GASTUAK</b>	<b>2.510</b>	<b>1.392</b>	<b>957</b>
<b>HARTZEKO</b>			
Negozio zifratik zenbateko garbia .....	1.291	-	-
Izakinen aldakuntza .....	-	-	52
Aktiborako egindako lanak .....	-	-	275
Emandako transferentzia eta diru-laguntzak .....	(A. 12.1) 1.534	1.379	495
Bestel. kudeaketa sarrerak .....	1	18	3
Sarrera finantzarioak.....	3	1	-
<b>DIRU-SARRERAK</b>	<b>2.829</b>	<b>1.398</b>	<b>825</b>
<b>Emaitza: (Galera)/Mozkina</b>	<b>319</b>	<b>6</b>	<b>(132)</b>



## INTRODUCCIÓN

El Tribunal Vasco de Cuentas Públicas (en adelante, TVCP), de acuerdo con lo establecido en la Ley 1/1988, de 5 de febrero, y en el Programa de Trabajo aprobado por el Pleno del Tribunal, ha realizado la fiscalización de la Cuenta General del Ayuntamiento de Zarautz para el ejercicio 2009.

Esta fiscalización comprende los siguientes aspectos:

- Legalidad: Revisión del cumplimiento de la normativa aplicable en las áreas de presupuesto, ingresos de derecho público, endeudamiento y operaciones financieras, personal, contratación de obras, servicios y suministros, y concesión de subvenciones.
- Contabilidad: Conformidad de la Cuenta General con los principios contables que le son aplicables. La Cuenta General contiene el balance de situación, la cuenta de pérdidas y ganancias, memoria y liquidación de los presupuestos del Ayuntamiento, de sus Organismos Autónomos y de su sociedad.
- Análisis financiero de la situación económica del Ayuntamiento.
- Otros aspectos: El alcance del trabajo no ha incluido un análisis específico sobre la eficacia y eficiencia del gasto ni sobre los procedimientos de gestión. No obstante, los aspectos parciales que han surgido en la fiscalización están comentados en el epígrafe II de este Informe.

El Ayuntamiento de Zarautz, municipio con una población de 22.627 habitantes a 1 de enero de 2009, integra en su estructura dos organismos autónomos y una sociedad pública:

- Zarauzko Turismo Bulegoa.
- Zarauzko Kirol Patronatua.
- Zarautz-Lur, S.A.

El Ayuntamiento participa además en la sociedad Zarauzko Industrialdea, S.A. (24,5%), forma parte del Consorcio de Aguas de Gipuzkoa, de la Mancomunidad de Urola Kosta, y de la asociación de agricultura de montaña Urkome.

## I. OPINIÓN

### I.1 AYUNTAMIENTO

#### I.1.1 OPINIÓN SOBRE EL CUMPLIMIENTO DE LA LEGALIDAD

##### CONTRATACIÓN

